

# Aretxagazeta

**ETA GAINERA...**

## Ze barri?

ASTEKO GAIA  
**Udazken  
Kulturala /08**

KIROLA  
**Kiroldegiko  
eskaintza /09**

LEINTZ GATZAGA  
**Erretiratuen  
Eguna /10**




**BASABEAZPI  
GUNEAK  
IREKI DITU  
ATEAK**








## ATREBENTZIAEZPADA/ Pozik bueltau zara eskolara? Ze egingo dozu ikasturtien ziherr?



**DIEGO FDEZ. DE ANTONA**  
8 urte

Oporretan ondo ibilli naz, baiñe ikastolara pozik bueltau naz. Andereñue ez nau hain pozik. Iguel aurrerau pozixeu egongo naz. Matematika ikastie eta gimnasia egittie gustetan jat gehixen.




**MAIALEN ARRIZABALAGA**  
4 urte

Pozik etorri nitzen ikastolara, eta lelengo egunetan ez neuen negarrik egin. Ikastolan geraketan naz bazkaitten, eta gaiñera, aurtan nagusixen gelan egongo naz.



**LAIDA ANTIXIA**  
4 urte

Pozik etortzen naz ikastolara jolas asko egiten dogu eta. Marrazkixak egitia gustetan jat gehixen. Pintzelekin ibili gara marrazkixak egiten, eta esku danak zikin zikin!




**GORKA ARBULO**  
11 urte

Astelehenien hasi nitzen eskolan, baiñe ez neuken bueltetako gogorik. Uste dot ikasturte barrixe ez dala gatxa izengo, baiñe ikusi egin biher. Inglesa ikestie gustetan jat gehixen.



**NAGORE URIARTE**  
11 urte

Eguaztenien hasi gitzen eskolan, baina gogo handi barik, oporretan askoz hobeto egoten gara-eta. Aurtan DBHn hasi dot, eta matematikak bierrien, antzerkixa ikastia gustetan jat.



**ENDIKA MARTIN**  
9 urte

Ikasturte barrixe pozik hasi dot, lagunekin egoteko gogo haundixa naukon-eta. Irakasle barri gutxi daukou, bakarrik ingleskua da barrixe. Hizkuntzak ikastia asko gustetan jat.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK SAIK BISITA EGIN DIGU** Astelehenean sai bat iritsi zitzaigun herrira, eta teiltatuz teiltatu ibili zen. Harrapatzeko saiakera ere egin zuten basozainek, baina saiak ihes egin zuen. Martitzen arratsaldean Pausokako teiltatura joan zen, bertako umeak ezagutzeko asmoarekin-edo. Basozainen esanetan, ondo egiten zuen hegan, eta horregatik zaila izan zen harrapatzea. / M.A

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Basabeazpi inauguratu

Arizmendi ikastolak Aretxabaletako gune berria, Basabeazpi izenekoa, inauguratu du.

ASTEAN BEHIN /05

#### Haur dantzariak domekan

Urtero moduan, domekan haur dantzariak etorriko dira euskal dantzak dantzatzera.

KIROLAK /06

#### Neka Galani elkarrizketa

UDako preferente mailako futbol taldearen ardura hartu du Neka Galan entrenatzaileak.

### ASTEKODATUA

# %75

#### IRAILAREN 9KO EURITEAZ, URKULU BETAZ

Sekulako euritea bota zuen bai-laran joan den irailaren 9an, osteguna. Euritea igarri egin da Urkulun, gaur egun %75,74an baitago. Sasoi honetarako nahiko beteta dago herriko urtegia.

### BESTEKEESANA

**“Dantza herrikoia izateko sortu zen Beinke-Loramendi dantza. Helburua zen, herriko jendea biltzea**

**eta herritarren parte hartzea bultzatzea. Azkeneko urteetan, baina, jendeak ez du parte hartu. Ondorioz dantza herrikoia baino, 'kotiloi' herrikoia bihurtu da; lau katu dantzan eta gainerakoak begira. Bere zentzua galdu du.**

**Utzitako hutsunea ekitaldi alternatibo batekin beteko dugu. Tapia eta Leturia etorriko dira giroa animatzera. Ea herritar guztiak dantza egin eta ondo pasatzen duten. Beinke-Loramendi dantzari dagokionez, oraingoz, eten bat egingo dugu. Hala ere, herritarren iritzia entzuteko gertu gaude. Herritarrek ohitura berreskuratu gura badute berreskuratuko dugu.**

LEIRE LARDIZABAL  
GOITB/04-09-09

### HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



*Garraxi  
ixildua*

**O**porrak atzean utzita eguneroko mugimenduari gehienek ekin diote. Nik aprobetxatu nahi dut bizitzari leihoak ireki eta lasaitasunez gertakizunak irakurri, susmatu, ikusteko... Atzera begiratuaz aurrera egin.

Udara lasaitasunaren sinonimoa izaten da baina ez beti. Aurtengoari begiratu: amaitu ezinezko gerrak, Atenaseko Olinpiadak, Beslán, euriteak... Nola irakurri gertakizun bakoitza? Galdera asko sortzen dira, baina gaur egoera hauetako kaltetuenak ekarri nahi ditut gogora: gizarteko txikiak, gazteenak. Nire barruan pena eta mina sortu zaizkit albisteei begira gaztetxoak jasaten duten manipulazioa ikusiaz, "onartuak" dauden injustizien aurrean gure sena kritikoa isilduta dagoela sentitzean. Ezin ukatu Beslaneko gertakizun eta egoera gordina, baina zeinen isilik gelditu diren Olinpiadetan parte hartu duten gaztetxoak eta, nazio baten "izen ona" lortzearen emaitza zehatz

batzuk lortzera presionatuta zeudenen izenak! Hori ez al da esplortazioa? Edota ekonomia zerbaiten motorra bihurtzen denean edozein gauza justifika daiteke? Zeinen isilik gelditzen diren Afrikan, bereziki, jaterik ez dautkatelako, egunero hiltzen diren berrehun haur asko horien

irudiak. Zergatik hauek ez daukate notizia izateko eskubiderik? Geure geografiako leku batzuk besteak baino garrantzi gehiago ote daukate? Argi dago hilketa (fisikoak, psikikoak, moralak) batzuk besteak baino gehiago balio dutela.

Nola azaldu edozein bizitzaren balorea? Eta besteok isilik. Askotan pentsatu dut uko egin diogula amets egiteari, erosotasuna dela gure lagunik ederrera, besteengatik bizitza "konplikatzea" ez dela erakargarria... Noiz arte horrela irauten?

Gaur artikulua amaitu gabe utzi nahi dut, azken iritzia eman gabe, zuk, irakurtzen duzun horrek egoera honi, iritzia honi amestutako bukaera eman diezaiozun.

**“Nire barruan pena eta mina sortu zaizkit albisteei begira gaztetxoak jasaten duten manipulazioa ikusiaz”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala





M. J. Aretxaga

## Irailleko kurtzie

Ikasleiei be bukatu jakie jairik jai eta hamabixak arte lo egitteko sasoie. Txikixenek hasi dittuzte eskola egunek eta oin, nagusixei toketan jakie. Aurten unibersidadien hasiko dienek be ilusiñoz egongo die. Suerte danoi!

Iraillien, edozelan be, norberak erueten dau bere kurtzie. Etxekoan-driek, irakasliek, aro-tzek... eta baita jubilauek be. Normalidadien sartuaz goiez, baina eskerrak astien sai baten bisitie euki douela sikiera. Zer ete daukie herriko etxietako teila-tuek! Behintzat sai horrei gustau jako bat baino gehixau! Pausokako teilatuen be egon ei zan denboratxo bat. Umiek bisitxetan joango zan. Eta bixen bitxartien basozainak, ertzainak eta udaltzainak erdi zoratute. Saixa nora, hareik atzetik.

**INAUGURAZIOA/** Beroa lantegiko bulegoak zeuden tokian 2 eta 6 urte arteko umeendako eskola eraiki dute

# Inaugurazio ekitaldi ofizial eta guzti ireki dute Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunea

AMAGOIA LASAGABASTER

Gaur goizean egin dute Arizmendiko Basabeazpi gunearen inaugurazio ofiziala. Ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako sailburu Anjeles Iztuetak eta Aretxabale-tako alkate Arritxu Olidenek hartu dute parte, besteak beste. Bihar, herritarrendako festa egingo dute.

Ikasturtea irail hasieran hasi zuten arren, Arizmendi ikastolakoek gaur goizean egin dute Basabeazpi guneako eraikinaren inaugurazio ofiziala. Biharko, berriz, herriari eta gurasoei zuzendutako festa antolatu dute.

### EKITALDI OFIZIALA

Inaugurazio ekitaldia goizeko 10:30ean hasi dute. Ohiko agurraren ondoren, eraikinean zehar bisitaldia eskaini diete Basabeazpira hurbildutako goi kargu, kazetari eta ikasleen gurasoei. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzako sailburu Anjeles Iztueta, Aretxabale-tako alkate Arritxu Oliden, Arizmendi ikastolako zuzendari Mikel Lezamiz eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarte-ko lehendakari Joxerra Zubizarreta izan dira ekitaldian. Arizmendikoek behin eta berriz nabarmendu gura izan dute Basabeazpi zabaltzeko pertsona eta erakunde horiek guztiek eskainitako laguntzaren garrantzia. Ekitaldia borobiltzeko prentsaurrekoa egin dute eta luntxa eskaini dute goizean.

Edonola ere, Basabeazpi gune-



Basabeazpi guneako neska-mutilak pozik daude eskola berriko jolasleku, jangela, eta abarrekin.

ko benetako protagonistak umeak eta haien gurasoak izango dira. Arrazoi horregatik, bihar-ko festa berezia antolatu dute.

### FESTA

Herritarrei eta, batez ere, guraso eta haien seme-alabei zuzendutako jaia izango da biharkoa.

Goizean, 10:30ean, dantza, abesti eta bertso saioarekin emango diote hasiera. Gero, bazkaria bitartean, jolasak, pailazoak eta buruhandiak izango dituzte. 14:00etan bazkaria egingo dute eta arratsaldean, ipuin kontaketa saioak eta tailerrak egingo dituzte. Azkenik, festa amaitzeko Txan

magoaren bisita izango dute.

### BASABEAZPI

Baliabide berriekin osatu dute ikastetxea. Psikomotrizitate gela, ikerketa eta dokumentazio zentroa eta plastika gela antolatu dituzte. Ikasgela bakoitzari auzoen izenak jarri dizkiote.



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

Jou Díaz  
Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

2004 · 2005

# Matrikulazio epea irailaren 6tik 24ra

belorrieta 4  
20550 aretxabaleta  
tel.: 943 79 00 69  
faxes: 943 79 72 25  
bulego ordutegia:  
16:00 · 19:00

**b ber tan**  
HIZKUNTZA ESKOLA

ingeleza | frantsesa | alemana  
maila eta adin guztiak | eskolak goizez eta arratsaldez





ARTXIBOA.

Arratsalde partean, herriko plazan elkartuko dira dantza taldeak alardean hainbat dantza egiteko.

**HAUR DANTZARIEN EGUNA/** Debagoieneko dantzari taldeek hartuko dute parte festan

## Haur dantzariak kolorez jantziko dituzte herriko kaleak domekan

AMAGOIA LASAGABASTER

**Loramendi Dantza Taldeak, urtero bezala, haur dantzariaren eguna gertatu du. Ospakizuna oraingo domekan, hilak 19, izango da. Herriko dantzariekin batera, inguruko herrietako dantza taldeek esku hartuko dute herriko kaleetan egingo dituzten dantza saioetan.**

Oraingo domekan, hilak 19, haur dantzariaren eguna ospatuko dute herrian. Horretarako, urteroko egitaraua kaleratu du Loramendi Dantza Taldeak. Ohi bezala, dantzak izango dira nagusi. Aur-

ten honako dantza taldeek hartuko dute parte haur dantzariaren egunean: Bergarako Gazte Alaik, Soralezuko Urratsek, Oñatiko Oñatzek eta Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxuk. Hala, 200 bat haur elkartuko dira.

### EGITARAUA

Txistularien dianaren ondoren, Aretxabaletako taldeekin egingo dute bat dantza talde guztiek. 10:30ak inguruan, hamarretakoa izango dute herriko plazan. Taldetan banatuko dira orduan, eta herriko plazan, Durana kalean, Ilargi plazan eta Mitarte plazan egingo dute dantzan. Horren

ondoren, 13:30ean herriko plazan elkartuko dira eta bazkaltzera joango dira. Ohitura denez, haurrak herriko hainbat familiariekin egingo dute otordua. Loramendi dantza taldekoek, urtero moduan, haur guztiek familia izan dezaten deialdi zabalago egin dute.

### ALARDEA

Arratsaldean, 17:00etan, herriko plazan elkartuko dira berriz ere, alardea egiteko. Sagar Dantza, Banakoa, eta Txulalai dantzak egingo dituzte, besteak beste. Ospakizunari 19:00etan emango diote amaiera.

## Txakurrak erroldatzeko prozedura irekiko du Udalak

A.L.

Animalien gaineko ordenantza berria dela-eta, Udalak gura du herriko txakur guztiak erroldatuta izatea. Arrazoi horregatik, laster batean horretara zuzendutako gunea irekiko du.

Udalbatzak, animaliak edukitze-ko eta babesteko ordenantza onartu eta gero, orain, arau eta artikulua guztiak batzen dituen liburuxka kaleratuko du. 2.000 ale banatuko dituzte etxez etxe. Horrez gain, Udalak txakur guztiak erroldatzeko prozedura ire-

kiko du. Helburua da herriko nahiz baserrietako txakur guztiak Udalean erroldatzea. Horretarako, laster egokituko dute behar den moduko bulego edo gune bat herrian.

### ARAUAK ETA ZIGORRAK

Liburuxkak era guztietako animaliak edukitzeko bete beharreko arauak jasotzen ditu. Animaliekin izan beharreko gutxieneko arretaren gaineko aholkuek gain, baina, aipatutako arauak bete ezear erabiliko dituzten zigorrak azaltzen dira. Besteak beste, isunak jarriko dituzte.



### Kurtzebarriko neska-mutilak eskolara!

Kurtzebarri eskolak astean eman dio ongietorria 2004-2005 ikasturteari. Ikasleak, ume zein nagusiak, pozik elkartu dira lagunekin. Ikusmina, ilusioa, berrikuntzak... Denetarik aurkitu dute. Eskolako irakasleak eta lantalde osoa ere gogotsu dau-  
de hasi berri duten ikasturteari aurre egiteko. / A.L.



**MAITE**  
ILE APAINDEGIA  
Sarasate 1 behea  
Tel. 943 79 59 05  
ARETXABALETA

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**Expres**



Santakurtz 16  
943 79 23 43

**Arotz lanetan behar duzun guztia**



**AZKARATE**  
AROSZTEGIA  
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20



**ARDATZA**  
Brikolaketa  
Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



**Iber**

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- ✱ Liburuak ✱

Otolora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

**ZARAIA**  
**taberna**  
Goizeko 06:00etik irekita  
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95



NEKA GALAN/UDA-KO PREFERENTE MAILAKO ENTRENATZAILEA

# "Pixkanaka arazoak konpontzen eta konfiantza hartzen joan behar dugu"

A.L.

**N**eka Galan 12 urtez ibili zen Eskoriatzan futboleko jokatzeko. Preferenteko maila, hortaz, ondo baino hobeto ezagutzen du. UDAko entrenatzaile moduan partidu bi egin ditu, eta denboraldirako asmo handiak ditu.

**Noiz hasi zinen jokalariekin lanean?**

Uztailen. Aurre-denboraldi gutzian izan naiz eurekin, eta oraingo giro onean eta gogor gabiltza lanean.

**Zelako taldea duzu aurten?**


Gutxi gorabehera joan den urteko talde bera daukagu. Aurrera Vitoria taldetik etortzeko Haritz Igartua izan da egin dugun fitxaketa bakarra. Beraz, aldaketa nabarmenak egin beharrean, egokitzapen lanak egiten gabiltza.

**Etorkizunean badago jokalaririk berriren bat fitxatzeko asmorik?**

Oraingo ez. 24 fitxa ditugu, eta uste dut denboraldia aurrera ateratzeko adina jokalaririk daukagula. Jokalariak nor bere postuan egokituz gero, ez dugu arazorik izango.

**Zelako denboraldia egitea espero duzu?**

Preferente mailan, taldeen arteko berdintasuna handia izaten da. Edozeinen aurka irabaz dezakezu partidua, eta alderantziz, edozeinen aurka gal dezakezu. Dena izaten da erabakitzeke.



ARTXIBOA

*"Mondrak hainbat fitxaketa egin ditu, eta talde sendoa du. Aurkari gogorra izango da"*

**UDAK dagoeneko bi partidu jokatu ditu. Zelan ikusi duzu taldea?**

Lehenengoa, Hondarribiaren aurkakoa, galdu egin genuen, baina ez gaizki jokatu genuelako. Futbol zelaietan jokaldi onak ikusi nituen, baina zoritxarrez hori ez zen emaitza islatu. Bigarrena, etxean jokatuakoa, irabazi egin genuen eta, gainera, oso

pozik gelditu nintzen zelai gainean ikusitakoarekin. Defentsa lana, adibidez, primerakoa izan zen. Hala ere, oraindik konfiantza falta sumatzen diet jokalariei. Atzealdean, esate baterako, urduritasun gehiegi ikusten dut. Pixkanaka arazoak konpontzen eta elkarrekin konfiantza hartzen joan beharko dugu.

**Zeintzuk dira denboraldirako helburuak?**

UDAK urte mordoa daramatza preferente mailan, eta argi dago gure helburua ez dela mailari eustea bakarrik. Gorako bidea hartu behar dugu. Joan den urtean laugarren postuan gelditu ziren. Aurten, hortik gora egon gura dugu. Helburuak beti izaten dira baikorrak; gero bete egin behar...

**Preferente mailan, zelan ikusten dituzu Debagoieneko gainerako taldeak?**

Gehien ezagutzen dudana Mondra da, eta aurten oso indartsu dago. Fitxaketa berriak egin dituzte eta talde sendoa dute. Oraingo, gainera, partidu onak egin dituzte. Aurkari gogorra izango da, duda barik. Hala ere, denboraldia luzea da, eta dena dago erabakitzeke.

**UDAK zuzendaritza batzordea aldatu du. Aldaketa horrek zelan eragin ditu?**

Ez dakit zer esan. Garai baten, UDAko gazte mailan ibili nintzen lanean eta orduan ez geneukan zuzendaritzakoekin tratu handirik. Oraingo, konfiantza handia eman didate; gustura nago.

ESKUPILOTA TXAPELKETA

## Lagun arteko eskupilota txapelketarako izena emateko epea zabalik dago kirol etxean

Urtero moduan, lau t'erdiko eskupilota txapelketa antolatu du Aretxabaletako kirol etxeak. Urriaren 2an hasi eta abenduaren 11n bukatuko da, eta federatuta ez dauden laguntzat izango da. Kategoría bi izango dira: maila oneko pilotarientzat lehena, eta gaitzakoentzat bigarrena. Izenematea irailaren 24a baino lehen egin behar da kirol etxean.

## FOTOKIROLA



### Giro bikaina, beste behin ere, Kurtzebarri

Eguraldi onaren laguntzarekin jende ugari hurbildu zen pasaden domekan, hilak 12, Kurtzebarri mendira. Tontorrean, betiko ohiturari eutsiz, salda beroa hartzeko eta meza entzuteko aukera egon zen lehenengo eta behin. Horren ondoren, txorizoa eta sagardoa banatu zuten Murruxiko Mendizale Elkartekoek. Bueltan, berriz, Mendiolan eman zioten agurra aurtengo Kurtzebarri egunari. / A.L.



**Hirusta**  
Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

**J.J. IRURE**  
HUBERTZEA

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15  
ARETXABALETA


943 793 187

## BASABE

### jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

JAUSQRO OSTATUA



Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61

## Dorleta

### taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8  
Aretxabaleta  
Tel.943 79 94 15

## Aretz

### taberna

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

## Esko Sport

Zure konfidantzako denda

Intxaurtxueta 5, ESKORIATZA. 943 71 52 96

trang world

TUCKLAND

SALOMON

TERNUA

ASTORE

adidas

Okindegia - Gozolegia

## Aretxabaleta

Loramendi 6 • 943 77 17 19

Basabe 2 • 943 77 00 81

Aretxabaleta  
Bertako okina



HURRETIK



Javi Gil

Pelukerue

Kadizkue izen arren ondo baiño hobeto ohittu da Aretxabale-tako bizimodure. Oin dala hillebete batzuk zabaldu euen gizonezkuendako Fino pelukerixie Durana kalien. Oingo nahiko orrazkera tradizionalak egitten dittu.

Noiztik pelukero?

Betidanik euki dot argi pelukero izen gure neuela, eta 80ko hamar-kadatik hona lan horretan ibilli naz. Tartien klinikako laguntzaille lanetan be ibili naz.

Nolakue da zure pelukerixie?

Praktikue, apala eta lan egitteko erosue. Gizonezkuendako bakarrrik da. Aurrerau, gizonezkuendako bakarrrik izengö dan edertasun aretue jarri gure neuke.

Lehenau zure lekuen euen pelukeruek betiko orrazkerak egitten zittuen. Zeurie ze da, modernue?

Dittudan bezeruek nahiko tradizionalak die, baiñe oingo oso ondo hartu naue. Orrazkera klasikuen aldeko bezeruek dittut, gehixenak nagusixek.

Badau gizonezko modernorik Aretxabaletan?

Gutxi, baiñe badauz.

Bezeruek onarketan dittu zure gomendixuek?

Bai, bai. Moztu gure izeten daue; gero, zela moztu galdetutakuen neure esku ixten daue. Horretan, behintzet, suertie dauket.

Zeuretako ze orrazkera gustetan jatzu?

Danetik eurueten dot, aldaketie gustetan jat. Baiñe, jakiña, neure buruei ulie mozkietie gaxaue izeten da.

Emakumezkuei be orraztutakue zara; ze moduz?

Oso ondo, emakumezkue orrazketie artistikuaue izeten da, gauza gehixau egin leike.

Eta umiekin zela konponketan zara?

Umiekin askatasun haundixaue eukitten dot. Kolore apur bat emun, marrazkiren bat egin... Lobei danetik egin dutziet daueneko. Gurasuek izeten die frenue jarten dauenak.

Ze afiziño dauketzu?

Asko dauket. Mendira fan, irakurri, sukaldien ibilli, biajiek egin eta, jakiña, neure lana.

Biaje bat?

Asko egin dittut, eta gehixenak zoragarrixek. Hurrengue ezkondu osteko biajien egingo dot. Sorpresa da nora, baiñe badakit itsasoko biaje horreittako bat izengo dala.


A.L.

NIREBIDAIAHURA/ Josu Velasco

Europa eta Asia / 2003ko maiatzetik 2004ko ekainera

Zelan hartzen da dena atzean utzi eta urtebete-ko bidaia egiteko erabakia? Josu Velascok argi zeukan. Eneko Etxebarrietaren —bizikletan munduari bira eman dion gasteiztarra— eta beste bidaiari batzuen abenturerekin erabat *engantxatuta* egon ostean, berak ere halako zerbait egitea pentsatu zuen. Baita egin ere. 2003ko maiatzean etxetik irten eta 2004ko ekainera bitartean Europa eta Asiako herrialdeetan ibili da bizikletan.

Hasierako ideia European barrena ibiltzea zen, baina azkar aldatu zuen iritzia. "Eslovenia edo Kroaziara iritsi gura nuen. Frantziako hegoaldeetik hasi eta Suitza, Italia eta tarteko herrialdeak pasatu ostean, uda aldean iritsi nintzen Kroaziara. Fisikoki primeran sentitu nintzen eta oraindik horrenbeste herrialde ikusteko nituela jakinda, etxera bueltatu beharrean, aurrera jarraitu nuen." Bidaian zehar, Josuren eguneko plana planik ez izatea zen. Egun batzutan kilometro mor-  
doia egiten zituen; hurrengoan, berriz, lekuren baten ostatu hartu eta ez zen mugitzen. Horrela egon zen Damaskon hilabetez. "Ez nuen ibilbide jakinik jarraitzen, momentuan momentuko erabakiak hartzen nituen. Horri esker bisitatu nituen mapetan azaltzen ere ez diren leku liluragarriak.



*"Momentuan momentuko erabakiak hartuz mapan azaltzen ere ez diren lekuetan izan naiz"*

*"Kafean loa eragiteko zerbait bota zidan, eta esnatu nintzenean diru-zorroa falta zitzaidan"*

zidala. Lo gelditu eta esnatu nintzenean sakelako diru-zorroa falta zitzaidan".

Kontu horiek sekula ez ahazteko, argazkiak eta egunero idatzitako egunkaria gorde ditu Josuk.

A.L.



Italia ikaragarri gustatu zitzaion Josu Velascori; argazkian, bizikleta eta guzti, Gubbio izeneko herrian.

JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

KiXkur  
ILEAPAINDEGIA


Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak



Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68



# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2004ko irailaren 17a / 178. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Irail amaieran hasiko da ekimenez betetako Udazken Kulturala Eskoriatzan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Udazkena gertu dagoela-eta, Eskoriatzako Udalak eta herriko hainbat elkartek Udazken Kulturala ekimena antolatu dute. Argazki erakusketa, hitzaldiak eta kontzertuak egingo dituzte, besteak beste. Ohiko bihurtu diren ipuin kontaketak ere izango dira.

Eskoriatzako Udala Udazken Kulturala antolatzen hasi da herriko hainbat elkarterekin batera. Nahiz eta oraindik guztia zehaztu gabe egon, zenbait ekimenen datak jakinarazi dituzte Kultura Saitetik.

### ASKOTARIKO EKITALDIAK

Urrian hasita, abendura arte ospatuko da Udazken Kulturala herrian. Momentuz, lehen bi hilabeteetako ekimen batzuk finkatuta dituzte. Hasteko, urriaren 17an, XV. mendiko bizikleta ibilaldia egingo da Eskoriatza inguruetan.

Bestalde, urriaren 20an, Eneko Etxebarrieta abenturazaleak bizikletaz mundu osoan egindako ibilaldiaren berri emango du kultura etxean. Diapositiba emanaldia izango da, eta munduko



Mendiko bizikleta ibilaldia egingo dute aurten ere Eskoriatzako inguruetan.

txoko desberdinetako musikaz baliatuko da bere kontakizunetarako.

Azaroko ekitaldiekin jarraituz, Kanadako fenomeno natural

ikusgarrien argazkiekin eginiko erakusketa izango da, Takolo, Pirritx eta Porrotxen azken lana eta hilaren 26an Kepa Junkeraren kontzertua.

Bestalde, beka berri bat aterako du Udalak irail amaieran; argazki zaharrak katalogatzea eta haiekin artxibo bat osatu gura du Eskoriatzako Udalak.

*Herriko argazki zaharrak katalogatzeko beka aterako du Udalak irail amaieran*

*Azaroaren 26an Kepa Junkera bizkaitarrak kontzertua eskainiko du*

*Datorren astean herriko zerbitzuak biltzen dituen gida aurkeztuko du Udalak*



### Ederto ibili ziren Tortolisko lehenengo egunean

Amaitu dira oporrak Tortolis ludotekako laguntzat, eta martitzenean atek ireki zituen berriro. Ez zen jende askorik egon bertan, baina lagunekin berriro elkartzeko gogoz zeuden neska-mutiko batzuk atek ireki orduko bertan ziren. Hasieran horma-irudi bat egitea pentsatuta zuten arren, azkenean oporrei buruz hitz egin, sukaldean ibili eta jazintoak egin zituzten, besteak beste. Urte guztia izango dute orain elkarrekin jolasteko. /Z.V.M.

### LABUR

#### Jende ugari Udalak aurkeztutako bi lanpostuetarako

Udalak udaltzain eta liburutegi laguntzaile postuak betetzeko lan-eskaintza egin zuen oporren aurretik. Liburutegi laguntzaile lanerako 91 pertsona aurkeztu ziren, horietatik sei eskoriatzarrak. Bestalde, udaltzain lanerako 29 eskara egin ziren; herritar bakarra aurkeztu zen. Oraindik ez da jakingo bi lanpostuetarako izendatutakoak nortzuk diren. Bitartean, baina, liburutegi zerbitzurako behin-behineko pertsona bat kontratatu du Udalak.



SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA, KENPOA ETA AEROBIKA DIRA ESKAINTZETAKO BATZUK

## Eskoriatzako kiroldegian kirol eskaintza zabala ikasturte honetarako

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Kirola egin gura dutenek Eskoriatzako kiroldegian dute aukera aproposa. Betiko aukerez gain, aerobika, kenpoa, gimnasia... izango dira. Osasuntsu egoteko bidea aurkituko dute aurten ere.**

*Adin guztiei zuzenduta, kirola egitera animatzen ditu eskoriatzarrak herriko kiroldegiak*

Eskoriatzako kiroldegian aurten ere edukiko dute eskoriatzarrak zer aukeratu. Ikastaroak antolatuta dituzte, eta gainera ohiko zerbitzuak erabilgarri izango dituzte herritarrek.

**KIROLA, OSASUNAREN PARTE**

Gorputza osasuntsu edukitzeko jatordu orekatuz gain, funtsezkoa da kirola egitea. Gura dutenek askotariko eskaintzak izango dituzte aukeran aurten ere Eskoriatzako kiroldegian.

Aerobik eskolak bi txandatan emango dituzte; astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, eta martitzen eta eguenetan, 19:00etatik 20:00etara eta 20:00etatik 21:00etara. Urrats errazenetik hasiz zailenera doa irakasten pausoz pauso

irakaslea. Nahiz eta ikasle gehienak emakumezkoak izan, gizonzkoek ere zuzenduta dago aerobik ikastaroa.

Kenpoa ere irakatsiko dute kiroldegian. Borroka-arte da, eta gazte eta helduei zuzenduta dago. Oraindik zehaztu gabe dago noiz emango diren eskolak. Kirol horrek gorputz eta adimena menderatzea du helburu. Gorputzak eraso baten aurrean nola erreakzionatzen duen eta ahalik eta eraginkortasun handienaz erantzutea bilatzen du kenpoak.

Sasoian egoteko gimnasia ere izango dute aukeran eskoriatzarrak, astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, hain zuzen ere.



Gaztetxo ugari hartzen dute parte kenpo ikastaroetan.

Zenbait ikerketaren arabera, 25 eta 65 urte bitarteko pertsonak ohitura txarrak hartzen dituzte. Bizitza sedentarioa eta bizi-ohitura ez onuragarriak arruntak omen

dira adin horretan. Hala, kiroldegiko eskaintzek aztura berriak hartu eta osasuntsuago bizitzeko aukera ematen diete herritarrei. Informazio gehiago, 943 71 53 28an.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Arizmendi Ikastola-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi Ikastola-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde-ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**AURKEZPENA**  
Bihar, zapatua, kirol taldearen aurkezpen ekitaldia egingo dute kiroldegian, 11:00etan hasita.

**IZEN-EMATEA**  
Bolibar auzoan San Migelak ospatuko dituzte. Bazkaria ere egitekotan dira, irailaren 25ean hain zuzen ere. Parte hartu gura dutenek, hilaren 19a baino lehen eman beharko dute izena 943 71 54 59 telefonora deituz.

**TXERTOIA**  
Irailaren 20tik urriaren 31ra gripearen kontrako txertoa emango dute osasun zentroan.

**AXTROKIRENAGENDA**

**EUSKARA KANPAINA**  
Axtrokik *Hemen euskeraz ein zeinke* kanpaina abiaraziko du. Denda eta tabernetan pegatina batzuk banatuko dituzte bezeroei lehenengo hitza euskaraz egin dezaten.

## Kirol masterra jarri du abian HUHEZIK

Z.V.M.

**Kirol masterra da Eskoriatzako Mondragon Unibertsitateko Fakultatearen eskaintza berria. Kirol erakunde eta zerbitzuak zuzentzeko profesionalak sortzea dute helburu.**

HUHEZIK, Athlon kirol erakundearekin elkarlanean, eskaintza berria jarriko du abian ikasturte honetan. Kirol masterra da, eta helburu zehatz batzuk betetzeko sortu duten eskaintza.

**IKASTAROAREN NONDIK NORAKOAK**

“Gaur egungo gizartearen beharrei erantzuteko sortu dugu masterra”, jakinarazi dute fakultate-



Irailaren 24an amaitzen da izenematea.

rik. “Helburu nagusia da kirol erakunde eta zerbitzuak zuzentzeko gai izango diren profesionalak

prestatzea”, azaldu dute. Etorkizunean, kontuan eduki beharko dituzte kirol-instalazioek eta bertako ekintzek gizartean zer nola inplikazioa eta eragina duten. Profesionalak kirol esparrua ondo ezagutzea funtsezkoa ikusten du HUHEZIK. Ikasitakoa taldeak gidatu, sortu eta dinamizatze erabilitea du helburu. Teoria eta praktika landuko dituzte masterrean, eta on-line tresnak ere erabilgarri izango ditu ikasleak. Interesatuek irailaren 24ra arte dute matrícula egiteko aukera. Urriaren hasi eta ekainean amaituko den masterrak, guztira, 520 ordu izango ditu; 300 ordu ikasgelan bertan egon beharrekoak eta gainerakoak osagarriak izango dira.

**LABUR**



**Autoestimua tailerra antolatu dute emakumeentzat**

Eskoriatzako Udaleko Gizarte Zerbitzuak ikastaro bat antolatu du datozen bi hilabeteetarako. Emakumeentzat autoestimua tailerra da antolatutakoa, eta urriaren eta azaroaren emango dute ikastaroa. Eguenetan izango da hitzordua, 15:00etatik 17:00etara.

Astelehenean ireki zen izenematea eta datorren egubakoitzetan, hilak 24, amaituko da. Gizarte Zerbitzuan eman behar da izena. Informazio gehiagorako, jo Hidalgo kale-dera edo deitu 943 71 31 36ra.

**SUTAN**

- TXIMINIAK
- EGUR-BARBAKOAK
- ESTALDURAK (Harri landuaren simulazioa poliuretanoan)



**COMPOSTELA**  
**Taberna**

**Olagarro espezialitatea**

San Pedro 12  
ESKORIATZA  
943 71 48 70



## ERRETIRATUEN EGUNA

## Hogeita hamar lagun batuko dira biharko ospakizunean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Aurten ere herriko erretiratuei omenalditxo egingo diete. Bihar izango da eguna, eta txikiteoa eta bazkaria prestatu dituzte haietzako. Opariak banatuko dizkiete, eta parte hartzen dutenen artean urte gehien dituztenei, oroigarria emango diete.**

Ohikoa denez, herriko jaien barruan, Erretiratuen Eguna ospatzen dute gatzagarrek. Bihar, zapatua, festa giroa nagusituko da berriz ere herrian.

Goizean hasi eta arratsaldera arte, lagun ugari elkartuko dira aspaldiko kontuez hitz egiteko, besteak beste.

**TXIKITEOA ETA BAZKARIA**

Nahiz eta jaiak hilaren 8an amaitu ziren, oraindik badute zer ospatu gatzagarrek. Izan ere, herriko nagusiei omenalditxo egiten diete urtero. Aurten 30 lagun animatu dira urteko hitzordura; iaz baino hiru lagun gutxiagok ospatuko dute jaiak.

Hain zuzen ere, 13:30ean elkartuko dira guztiak, eta hasteko, txikiteoa egingo dute, trikitilariak lagunduta.

Horren ondoren, 14:30ak inguruan, Toki-Eder elkartera joango dira. Bertan, mahaiaren inguruan eseri eta guztiak batera bazkalduko dute. Jon Sasiainek adierazi digunez, aurten ez dute jana elkartean prestatuko. "Nahiz eta orain arte elkarteko sukaldea erabili dugun Erretiratuen Eguneko bazkaria prestatzeko, aurten Gatzagain jatetxeari eskatu diogu otordua antolatzeko", azaldu du Jonek. Hura eta beste boluntario batzuk arduratuko dira bazkaria zerbitzatzeko. Hala, omenalditxoek jai hartu eta ez dute ezer

egin behariko; mahaiaren bueltan eseri eta ahalik eta ondoen pasatzea izango da euren zeregina.

Esan bezala, aurten bilduko diren 30 lagunek ez dute asperetzeko betarik izango. Jakina da horrelako bazkarietan ederto ibiltzen direla, gehienak agertzen dira eta egun berezia ospatzen.

**BAZKALOSTEKO GIROA**

Gatzagainen prestatuko duten janaria bukatu eta trikitilarien doinuekin dantza egiteko aukera izango dute Toki-Ederren bilduren diren lagunek.

Horren ondoren, azken urteetan egiten duten moduan, bazkarian parte hartzen duten guztiak artean opariak banatuko dituzte. "Guztiei zenbaki bat emango diegu, eta gero, zozketa egingo dugu", adierazi digu Sasiainek. Opariei dagokienez, liburu sortak izango direla jakinarazi du.

Azkenik, ohiturarekin jarraituz, bazkarian parte hartzen duten emakume eta gizonetako nagusien omenalditxo egingo diete. Emakumeak lore-sorta eman ohi diote; txapela, berriz,

*"Aurten ez ditugu loreak eta txapela emango; isilean gordeko dugu bihar arte"*



ARTXIBO

Iaz baino erretiratu gutxiagok hartuko du parte biharko ospakizunean.

gizonezkoari. Hala ere, aurten oroigarri desberdinak emango dizkietela jakinarazi dute antolatzaileek.

Zer oparituko dieten galdeztzerakoan, ez dute argibiderik eman, isilean gorde gura dutela adierazi dute. "Hala, bihar arte

jakin-mina piztuta izango dute omenduek, ez baitituzte urtero bezala txapela eta loreak hartuko".

Primerako giroan bizi izango dute, beraz, Gatzagako erretiratuek biharko eguna. Zintzo eta ahalik eta ondoen ibiltzea falta zaie orain herriko nagusiei.

## Otxandiarren bisitaldiarekin agur esan zieten Andramaixei

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Amaiera arrakastatsua izan zuten Andramaixek. Otxandio eta Gatzagako herritarren arteko lehia egin zuten irailaren 8an, eta maila bikaina erakutsi zuten bi herriek antolatutako probetan. Datorren urtean berriro egingo dutela jakinarazi dute.**

Urteroko legez, Andramari jaien azken egunean ottxandiarren bisita izan zuten gatzagarrek. Aurten ere, ez dute hutsik egin biz-

kaitarrek. Etxafuegoak botata egin zieten ongietorria irailaren 8an. Meza eta bertsolarien kontuak entzun, eta gero, herritarrekin bazkaria egin zuten. Eguna amaitzeko, Gatzaga eta Otxandioko lagunak lehia egin zuten.

**LEHENENGO LEHIA ARRAKASTATSUA**

Aurten Gatzagara iaz baino ottxandiar gutxiago gerturatu den arren, giro paregabea egon zela jakinarazi digute jaien antolatzaileek. "Eguraldi eskasa egin zuen, eta asko etxean geratu ziren". Hala ere, animatu zirenek primeran

pasatu zutela jakinarazi zuten antolatzaileei. Gutxi gorabehera, 60 bat lagun etorri ziren oinez Gatzagaraino.


Bazkalostean lehia egin zuten bi herriek; lehen aldiz egin zuten, eta primeran irten zen guztia. Pilota partiduetan, esaterako, gatzetxoek maila bikaina erakutsi zuten. Sokatira, makila proba... egiteko aukera izan zuten.

Ekimena errepikatuko dutela ziurtatu dute antolatzaileek. Gainera, lehian ia herri guztiak parte hartu zuela ikusita, poztu egin zirela gehitu dute.



ZVM

Erakustaldi polita eskaini zuten gazteek pilotan.

**FAGOR**

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebaso 7  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa  
SPAIN  
Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001MONDRAGON  
CORPORACION COOPERATIVA**NAIRA  
Taberna**Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71



2004/2005

EUSKARA

IKASTAROAK


Eskaintza: Euskalduntze maila guztiak, Alfabetatze, EGA.  
Ikastaro bereziak: MINTZAMENA LANTZEKO, SAKONTZE...  
Informa zaitetz!

Eraritmoak: Eraritmo guztiak.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.  
16 urtetik gorakoentzat.

Matrikulatzeko epea: Irailaren 1etik 24ra.

Bulego ordutegia: Goizez: 09:00-13:00 / Arratsaldez: 15:00-  
19:00



### Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /  
maila guztiak /  
Ordutegi zabala /  
Bekak / HABEko diplomak ...

HABEren dirulaguntzaz	<b>LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA</b> Nafarroa 2-4   20550 ARETXABALETA   Tel.: 943 79 21 68   Faxa: 943 79 92 62 Intxaurtxueta 10   20540 ESKORIATZA leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net	<b>UDAL</b> EUSKALTEGIAK
	www.udaleuskaltegiak.net	

Aretxabaleta | Arrasate | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza |  
Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

# Ater Be Landetxea

*Zelaikoa baserria*

*Leintz Gatzaga*

Tel.: 943 71 50 37 • 686 554 015



### Zerbitzuak:

- + Berogailua
- + Tximinia
- + TB logela guztietan
- + Internetarako konektzioa
- + Faxa
- + Finlandiar sauna
- + Turkiar bainua eta hidromasajea
- + Atseden-gela
- + Masajea
- + Atari-aurrea
- + Egongela





## zure ongizatea saritzen dugu

- **4 osasun azterketa doan**

[zainduzeko fisioterapeutaren eskutik]


- **Zainduz Osasun gida zure etxean doan**

[Osasunaren inguruko gaiak, artikulu interesgarrien bilduma, irteerei buruzko informazioa...]


**Berrikuntza, kalitatea eta esperientzia zure esku.**

- **Gaurtik aurrera iralleko kuotaren %50a doan**

*Zatoz eta galdetu!*



# Zainduz



Ilargi Plaza, 6 behea  
Tel. 943 71 27 92  
20550 Aretxabaleta (gipuzkoa)  
[www.zainduz.com](http://www.zainduz.com)

